



piipilean

Soraluzeko Hamabostekaria 89. alea 2004ko apirilaren 30a

Osasun-etxea euskarazko zerbitzu osoa noizko?



IKERLEKU
PODOLOGIA ZENTROA

Oinetako gaixotasunak

Azterketa biomekanikoa

Kirol podologia

Neurrira egindako plantillak



Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean

GOL

GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE

Iragarlearen txokoa: Jose Antonio S.L.

Gabolatz, 19- Telefonoa: 943 75 11 14 - 943 75 24 49

*“Igeltseritza orokorra egiten dogu;
sukaldiak, komunak, teilatuak...”*

Noiz zabaldu zenduten enpresia?

Oindala asko. Gutxienez badira 35 bat urte hasi ginala. 70. hamarkadan zabaldu neban enpresia.

Zenbat pertsonak egiten dozue lan enpresan?

Gaur egunian 5 langile gare, danok gara herrikuak.

Zer zerbitzu eskeintzen dozue?

Igeltseritza orokorra egiten dogu, danetik; sukaldiak, komunak, teilatuak,...

Ze ingurutan egiten dozue lan normalian?

Herrixan bertan egiten dogu lanik gehixen, baina alboko herrixetan be lan egiten dogu; Eibar, Bergara, Elgoibar...

Zertan diharduzue oin?

Errabal kaleko hormia konpontzen gabiz.





Emakumeak iraintzen dituzten iragarkiak...

ELENE ALBERDI

Nork ez du ezagutzen Kas Naranjak hain ospetsu egin duen ipurdia? Ederra, biribil-biribila, solariumetik pasa berria..badakizue, iragarki bukaeran agertzen den neskarena ote den geure buruari galdetzen diogun hori. Jakinekua da publizistek, sarritan, emakumearen (batez ere!) gorputza erabiltzen dutela erreklamo modura, baina kasu honetan gorputzaren atal zehatz bat hartu dute, ipurdiaren lehen plano! hasierako segundotik ia, ia bukaeraraino. Atzean ditu, gainera, irrifarra ahoan, gizon mordoxka bat, eta parean aurkitzen ditu beste hainbeste, umeak tartean...Azkenik, bere antzera korrika dabilen mutil batekin topo egiten du. Ez zaio apenas ezer ikusten. Hori bai, bular ederrak dituzten neska "katxarroak" atzetik ditu! Behar bada askok ez diote horri erreparatu; izan ere, zein ongi gelditzen zaizkion ipurdi horri praka motz elastiko lanranja horiek...

Iragarki honen inguruan hitz egiten dudanean gauzak bere onetik ateratzen ditudala esaten didate, edo-eta "gustatuko litzaizuke horrelako ipurdia edukitzea" bestela. Hori ere entzun behar!

Kontua da edertasunaren eredu jakin bat inposatzen digutela, eskaparateetako manikiei begiratzea besterik ez dago. Askok neure eskumuturra bezalako iztarrak dituzte eta!

Baina badira Kas Naranjako iragarkiak baino askoz okerragoak, askotan hautsak harrotu dituzten Axe desodorantearenak

esaterako. Adibide bi jarriko ditut; *Márcales el camino* leloa duena bata. Eskutik hasi eta sabelalderaino desodorante arrastoa uzten du mutikoak, ondoan duen neskatoak hura jarraitzeko. Habrase visto!!! Ez hori bakarrik, hanka batetik gora iztarreraino desodorantea ematen agertzen den beste mutil baten irudia ere erantsi zioten iragarkiari gerora!! Bestea... sutan jartzen nauena, edozein unetan neskok prest egon behar dugula esaten duena da, mutilen gustoko izateko noski. Ah, eta etxea erretzen ari bazaizu, lasai! ispiluaren aurrean jarri setazko kamisoi gorria edo txuria jantzi erabakitzen. Iraingarria da, emakumea gizaki pasibo eta sumisoa bezala aurkezten dutelako.

Genero indarkeriari aurre egiteko, besteak beste, Publizitatearen Legea aldatuko duela iragarri zuen orain dela gutxi Zapateroren gobernu berriak, emakumeak iraintzen dituzten iragarkiak kentzeko. Ez naiz orain bi gaiak nahasten hasiko, genero indarkeriaz luze hitz egin daiteke eta. Hori bai, datu modura honako hau; apirillean 10 emakume hil dituzte euren senar edo bikote lagunek Estatuan.

Honekin guztiarekin zer esan nahi dudan..tira, ba, horrelako arazoei aurre egiteko hezkuntzan ahalegin berezia egin behar dela, berdintasuna eta elkartasuna oinarri dituen gizarte bat lortzeko. Eta, nere ustez, eskaparateetako manikiek, edo Kas Naranja eta Axe desodorantearen iragarkiek ez dute gizartea hobetzen lagunduko duten balorerik zabaltzen.

Telegrapak

Aupi irakurle. Stop. gora bihotzak!. Stop. Soraluze Kubako La Habanaren antza hartzen hasi da. Stop. etxe koloretsuak herri erdian, kubatarrak nunnahi... Stop. lan erritmo lasaia obretan... Stop. ez litzake txarra!. Stop. lasaitasun pixkat, denbora mantxotzia... Stop. euskaraz sendatu ahal izatia doktoreekin.... Stop. barberu euskaldunekin! . Stop. Artadik bazekixan euskeraz. Stop. bihako jakin!. Stop. galdetu aittitta eta amari. Stop. guk baino gehixuago ikusi dabe harek!. Stop. baina tira, bestela kataluniara be emon geinke bueltatxo bat. Stop. ta han zertan diharduen ikusi. Stop. esnatuko litzake han bat baino gehixao. Stop. Katalunian. Stop. hemen... zera... Stop. antzerkixak kapillan... Stop. zirkua Udaleko batzar aretuan... Stop. hauteskundietara aurkezteko sinadura batziak... Stop. gazte lotsagabe asko baztarretan... Stop. en fin!. Stop. onena mendi gainera jua eta dantzan egitia. Stop. ez?. Stop. ba noiz edo noiz egin leike hori be. Stop. ez?. Stop. beti ez. Stop. pelotan be egin bihar da. Stop. eta herriko jaiak antolatzen parte hartu . Stop. eta Herri Urratsera jua. Stop. eta udaltzainei biolina jo. Stop. eta Pil-pileaneko lehiaketan parte hartu.Stop. soberan garenak gu garala esanez!. Stop. eta beste gauza asko Pil-pilean azaltzen ez diranak. Stop. bizi eta egin traba gutxi!. Stop. muxu asko ipurdian! (R.)



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.
Telefonoa 943 75 13 04
comunidades.kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU
pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Eguzkiñe Aldazabal, Enara Agirre, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

Publizitatea: Ugaitz Catalan (943 75 13 04)

Logotipoa: Jon Gabillondo
(943751304 tel.)

Banaketa: Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop.

Azala: Pablo Galarraga

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.




SORALUZEKO
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA



Osasun zentruko atarian Euskal Herrian Euskarazek idatzitako bi bertso daude, euskarazko zerbitzu osoaren beharraz ohartarazten dutenak.

Zorion agurrak



Itxaso Valero
Maiatzaren 11a
10 urte
ZORIONAK!!
Jo trikitixa eta
alaitu gure bizitza.
Etzekoen partetik.



Ekain Larrañaga Agirre
ZORIONAK Itziar eta Larra!
Aita eta ama bezin polita zatoz
Ekaintxo! ez negarrik egin, nahi
beste karamelo eta txutxerixa
izango dozu eta!
Pil-pileanekoen partetik.

Solfeoko eskolak emango dira.

Interesatuok, deitu,
616533796 telefonora.
(Izen ematea ekainaren 15a
baino lehen egin behar da.)

1954. urteko kinto bazkaria

Txurruka jatetxean
13:35ean argazkia eta 14:30etan hasiko da
bazkaria.

Izena emateko:
Josefina Pardo 943751671
Rosarito Oruesagasti 943751004
Raquel Lopez 943752426



JARDUERAK

Gipuzkoako Foru Aldundia

EGipuzkoako Foru Aldundiak 2004 urteko beken egitaraua ezagutzera eman du. Musika, dantza, antzerkia, ikus-entzunezko arteak, literatur sorkuntza, kultur kudeaketa, zaharberrikuntza eta ikerketa historikoko bekak. Eskerak aurkezteko epea 2004ko maiatzaren 25ean amaituko da. Informazio guztia www.gipuzkoa.net/kultura web gunean.

Udako lanaldiak 2004

Donostia inguruko hainbat gobernuz kanpoko erakunde aurtengo udarako lanaldiak antolatu dituzte 20 urtetik gorako gazteei zuzenduta. Parte hartzen duten gazteek etxerik gabekoen eguneko zentro baten, gaixo mentalen eguneko etxe baten, Martuteneko presoekin edota etorkinentzat harrera gune batean lan eginez laguntzeko aukera izango dute uztailea, abuztua edo iraillean, 7, 11 edo 15 eguneko txandetan.

Greenpeace-ren udalekuak

Greenpeace taldeak Cadizeko Algodonales Nekazal Aterpetxean 9 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzendutako udalekuak antolatu ditu. Txandak 10 egunekoak izango dira uztailean eta abuztuan (66 ume txanda bakoitzeko). Epea: plazak bete arte

Gazte oporraldiak

Gipuzkoako Foru aldundiak aurtengo oporraldirako 'GAZTE OPORRALDIAK 2004' antolatu ditu 14tik 17 urtera bitarteko gazteei zuzenduta. Txandak 7, 10 edo 15 egunekoak dira eta euskara, ingelesa edo frantsesa ikasteko txandak ere badira. Zozketarako izen-ematea: apirilaren 26tik maiatzaren 6ra. Informazioa www.gipuzkoa.net/en.

SALGAI

SEAT ALHAMBRA

1.9 TDI 110CV Urtea:1999 Kolorea:Gris metalizatua.7 exerleku eta kristal ilunak. Tel:615 700 511

WOLKSWAGEN TRANSPORTER

1.9 gasolina. Lo egiteko prestatua. Urtea: 1.982 Tel: 943811053/696578871

Pisu bat salgai SORALUZEN

Garaje eta guzti. Harremanetarako, deitu 656780748 telefonora.

Gutunak

KULTURAREN GARRANTZIA

Udalaren babesarekin egindako liburu baten aurkezpena Udal aretoan egiten da. Herriko talde batek antolatutako antzerki emanaldi bat, ez,ezinda egin Udal aretoan. Kontuan izanik herriari daukagun lokal eskasia, lotsagarria ikusten dugu Udal gobernua osatzen duten taldeen jarrera. Sorraluzen programatzen diren ekintza kulturalen aurrean EAJ-EA-koen aldetik esku zabaltasuna eskatzen dugu. Ostiral honetan izango den bakarriketa egiteko, askoz ere baldintza hobekak eskeintzen ditu Udal aretoak, horrela ikusten dute antolatzaileak ere, Polikiroldegiko erakusketa gelak baino. Antzezlearen duintasuna eta herriaren izen ona zaindu egin behar direlako, Udal aretoa utzi ez izana salatzea nahi dugu. Traba eta oztopo guztien gainetik, gure babesa eta laguntza herriari kultura bultzatzen ari diren talde eta pertsona guztiei. Ez etsi.

Txipti

(S.A.H plataformaren izenean)

Apirilak 28, osasun laboralaren eguna

2003. urtean, 150 izan dira hildakoak lan-istripuak direla eta. Aurtun, 17 lagun dira hildakoak urtarriletik hona!

Europar, urtean 8600 lan-istripu ematen dira batzabeste. Lan segurtasunerako legedi bat badago, baina kasu gehienetan %80, ez da betetzen. Administrazioak, enpresariei usten diete aukera hau eta hauek, ez dute betetzen. Enpresariak nahiago dute produktibitatea segurtasuna baino. Eta honi, lan prekaritatea gehitzen badiogu, hemen daude arrazoi nagusiak! Lan prekariorik eta lan istripuak oso loturik daude. En-

presariak nahiago dute prekaritatea bultzatzea beraien potsikoak betetzeko, segurtasunean dirua gastatzea baino. Prekaritateak, prebentzio eta osasun eskubide oinarrikoak galtzea dakar:

-Arriskuen inguruko informazio gutxiago, prebentziorako informaziorik ez jasotzea

-Arrisku larri baten aurrean ezin zara zeure lanpostutik mugitu bestela kontratua ez berritzea liteke posibleena

-Zure osasun egoeraren zaintza zehatza ez egitea

-Babes indibidualerako ekipamenduak ez emotea

-Lanarekin loturiko istripu edo gaitortasun batek lesiorik sortzen badizu kontratua ez berritzea

-Etab...

Egiaztatzen da, mugagabeko kontratu bat daukaten soldatapekoen arteko lan-istripuen tasa % 55,2 da eta aldi baterako kontratua bada %123. Beraz, aldikotasunaz lan -istripu bat izateko sibiliteatea 2,2 bider handiago da.

Bestalde, administrazioak ere, legedi hau bete dadin neurriak hartu beharoko lituzkete; bai sentsibilizazio eta prebentzio mailan eta baita istripu hauen aurkako borrokan ere, orainarte ez duena egin.


Ezin dena onartu da, hiru egunetik behin, langile bat lanpostuan hiltzea. Lan baldintza eskasak, lan-istripuen arrazoi nagusiak dira. Heriotza guzti hauek, kapitalismoaren esplotazio basatiaren ondorioak dira.

Elkartzen

Zer irizten dotsazu?

Soraluzeko Euskal Herrian Euskaraz taldeak, herriko osasun etxeke zerbitzua euskaraz izan dadin eskatzeko sinadura bilketa hasiko du maiatzaren 8an.

Zer eritzi daukazu anbulatorixuan zerbitzua euskaraz eskatzeko sinadura batziaren inguruan?



Gorka Tornos
19 urte
ikaslia

Nere ustez bai, beharrezkoa da eskatzea euskara erabiltzea edozein zerbitzu publikotan, ze hizkuntza ofiziala izanda, ezin leike onartu zerbitzu publiko baten ez erabiltzea. Nik adibidez, nere medikuakin erderaz egin bihar izaten dot.



Ane Muro
administratzailea
30 urte

Ondo iruditzen jata eskaeria. Lehenengo gauzia, eskatu biharrik be ez litzake izan bihar. Juaten zara anbulatorixora, eta askotan, hasten zara euskeraz baina-erderara pasau bihar izaten zara.



Arantzasu Laskurain
farmaziakoa
29 urte

Nik uste dut beharrezkoa dala euskeraz atenditzia eta hori lortu bihar dala. Ni juaten naizenian batzutan euskeraz eta beste batzutan erderaz egin bihar izaten dot.



Iker Uzin
ikaslea
21 urte

Nik uste dot eskubidia euki bihar dogula danok Euskal Herrixan edozein zerbitzu euskeraz jasotzeko eta osasun zerbitzuak derrigorrez egon bihar leuke euskeraz. Nere kasuan, ez naiz askotan juaten anbulategira eta ez dakit zela dagan.



Abel Olaizola
produkzio arduraduna
45 urte

Eskaera hau beharrezkoa da, ze da euskera erakunde guztientan erabiltzen. Ni normalean anbulategian euskeraz eitten dut baina beti dao norbait edo mediku bat edo erizain bat ez dakiena edo errestazun gehiago daukan erderakin eta orduan erderara pasau behar zara



Mari Karmen Oñate
etxeakoandria
55 urte

Oso ondo iruditzen jata. Oin gero eta gehixao egin leike euskeraz anbulatorixuan, baina oindio eskatu bihar da.



EDURTZA kafetegia
Taberna eta jatetxe zerbitzua

Eguneroko menua eta pintxoak

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze



Hnos. BENITO ANAIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Kooperatibak Eroski utzi du

Pasa den apirilaren 22an egindako bazkideen urteko batzarrean jakinarazi zuten Sociedad Cooperativa Placencia Eroski utzi eta hemendik aurrerako bidea bere aldetik egiteko hartu duen erabakia. Besteak beste, Erabaki hau hartzeko arrazoiak izan dira, batetik "Eroskiren lan baldintza gogorrak" eta bestetik "bakarka joanda bezeroei eskeintzeko prezio hobekak lortzeko aukera" ikusi izana. Bazkideek aho batez onartu zuten orainarteko zuzendaritzak hartutako erabakia eta zuzendaritza berriko kideak aukeratu zituzten; Mireia Lete, Iñaki Kintanilla, Luis Mari Unamuno eta Aitziber Atxa. Beraz, zuzendaritza berriak Gipuzkoako biga-



ren kooperatibarik zaharrena (XX. mendearen lehen hamarkadako) denaren ibilbide berria gidatzeko ardura izango du datozen urteetan.

Sahiesbideko lanak geldi egon dira



Olatik Estaziora doan Sahiesbideko lanetan azken asteetan izandako geldialdiaren ostean, lanak maiatzean berrekingo dira. Udalak jakinarazi duenez, lanak "ardura duen enpresaren erabakiz gelditu dira, zeuden langile kopururako lan karga txikiegia omen zela eta". Hala ere, enpresak bere horretan mantentzen ditu lanak amaitzeko datak. Zeletako zubia botatzeari dagokionez, proiektu berri bat prestatu behar izan da baina abuztua aurretik bota eta berria egitea aurrirakusten da.

Ikastaro berriak KZ Gunean

Hil honetatik aurrera, KZ Gunean kurtso berriak eskainiko dira: KZPRES-TAKUNTZA ikastaroak.

Herriko langileei zuzendutako kurtsoak dira eta gai desberdinak jorratzen dituzte:

Banka Elektronikoa: Ordainagiriaren, ordainketen eta kobrantzen helbideratzea.

Erabili ordenagailua fax funtzioak

egiteko

...

Interesatuak informazioa lortzeko telefono honetara deitu dezaketek:

902 252 595

edo beste telefono hauetara 943 75 30 45 eta 943 79 94 44.

Astearte eta ostegun arratsaldetan KZ Gunean bertan jaso liteke informazioa eta izena eman.

EHNA ateratzeko bulegoa jarriko dute Santa Ana kalean



Soraluzeko Udalbiltzako ordezkariak jakinarazi dutenez, maiatzean eta ekainean zehar EHNA tramitatzeko bulegoa zabalduko dute herrian. Bulego Santa Ana kalean jarriko da eta ostiral arratsaldetan (19etatik 20etara) eta larunbat eguerditan (11etatik 13etara) izango da zabalik. Euskal Herriko Nazioarteko Agiria ateratzeko interesa duten herritar guztiek, karnet tamainako hiru argazki eta 15 euro eraman beharko dituzte. Orainartean 200 pertsona baino gehiagok atera dute EHNA Soraluzen. Ba omen dira bestalde, oraindik agiriren bat entrega-tzekotan direnak ere.

San Andresko baserritarrekin

Soraluze Baso Bidez egitasmoaren barruan, joan zen larunbatean San Andresko baserritar eta lurjabeekin batera bildu zen Udala. Partehartzea nahiko urria izan zen eta lau baserritar baino ez ziren azaldu San Andres auzotik. Azaldu zirenek astebeteko epea izango dute egitasmoren xehetasunak aztertu eta bertan partehartuko duten ala ez erabakitzeko. Bileran izan ez zirenei ere banatuko zaie bertako zuhaitzez osatuta basoak mantendu eta ugaritzea helburu duen egitasmoren berri.

JAVIER ALONSO ZELAIETA

434 ZENB.KDL

**HORTZ
KLINIKA**

MEDIKU ESTOMATOLOGOAK



ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

**Hotzian eta beruan
jotako tornilluak**

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461

E-mail: general@pascualchurruga.com

Errekalde 21

20590 SORALUZE

Sinadura bilketa hauteskundeetarako *Ajenda 21; Kataluniako herrien esperientzia*

Herritarren Zerrendak (HZ)k, datorren ekainean egingo diren Eupako hauteskundeetara aurkezteko sinadura bilketa hasi du aste honetan. Guztira 40.000 sinadura behar dituzte hauteskundeetara aurkeztu ahal izateko. Sinadurak jasotzeko, apirilaren 28tik maiatzaren 8rarte bitartean Udaletxean izango dira eguerdiko 12etatik 13era eta arratsaldeko 19etatik 20etara. Sinadura baliagarria izan dadin nortasun agiria eraman behar da.

Bestalde, hauteskundeetan botua emateko aukera izango duten herritarren zerrendak ikusgai daude dagoeneko, nahi duen guztiak aukera dauka bere datuak egoki jasota dauden baieztatzeko.



Soraluzeko Udaleko ingurumen batzordeburua, Debabarrenekobeste Udal batzuetako zinegotzi eta teknikariek batera Katalunian izan da azken hiru egunetan, bertako herrietan Ajenda 21 programaren ezarpenarekin izandako esperientziak ezagutzen. Hiru egunotan, Granollers, St. Celoni, Arenys de Mar, Sant Boi de Llobregat, Vilanova i la Geltru, Mataro, Vall d'en Ges eta Bartzelonako diputazioa bisitatu dituzte, bertako ordezkarien laguntzarekin.

Herrian garatu asmo den Ajenda 21aren inguruan, alderdi politiko guztien ekarpenak jasotzen dituen diagnostikoa Debegegan omen dago behar bezela eguneratzen etadatozen hilabeteetan herriko gizarte eragile ezberdinei aurkezteko asmoa omen du Udalak hauen ekarpenak era jasoak izan daitezzen.

Material asko batu da Boliviarako

Parrokiko misioetako taldeak adierazi digunez, asko eta asko izan dira Boliviarako material bilketaren deialdiari erantzun dioten herritarrak eta denetarik eta asko bildu dute. Eskerrak eman nahi dizkiote jende guztiari.

Gilako orubean hiru etxebizitza

Unanue eraikuntza etxeak, Errabal kaleko orubean 3 etxebizitza eta baxu bat egiteko baimen eskaera aurkeztu du Udalean. Inongo okerrik ez bada, datorren asteleheneko gobernu batzordean emango dio Udalak baiezkua eraikuntza etxeari eta etxebizitzak eraikitzeke lanei ekiteko moduan izango dira. Dagoeneko eskabadorak hasita daude, duela urte morderokka, bertako etxeak bota zirenetik hutsik zegoen orubea zulatzen.



Musika Modernoko Klaseak

Soraluze Musika Eskolan



**Nahi al duzu
Gitarra Elektrikoa,
Baxu Elektrikoa edo
Bateria jotzen ikasi?**



14 urtetik gorakoentzat klaseak

2004/05 ikasturterako Matrikulazioa Zabalik !

Maiatzak 3tik ekainak 4ra

Zatoz Soraluze Musika Eskolara eta informazio zaituz.

Institutuan astelehenetik ostegunera, 17:00etatik 20:00ak arte, edo 686 26 34 74 telefonoan ordutegi berdinean.

... edo agian; klarinetea, tronpeta, saxoa, akordeoia, pianoa, tronboia, biolina, trikitixa, flauta, tronpeta, panderoa, gitarra klasikoa, txistua... helduentzako klase bereziak!



Soraluze Musika Eskola
Frontoi kalea Z/G
148 P.K.
Telefonoa: 686 26 34 74

Sinadura bilketa osasun zerbitzu euskalduna eskatzeko

Soraluzeko Euskal Herrian Euskaraz taldeak osasun administrazioan euskara "benetako" normalkuntza bidean jar dadin eskaera egiteko, sinadura bilketa egingo du herrian. Sinadurak batzeko lehen eguna maiatzaren 8^a izango da eta horretarako mahaiak jarriko dituzte herriko kaleetan.

Hizkuntza eskubideak betetzeko eskaera

Euskal Herrian Euskarazek prestatutako sinadura orrian, Hizkuntza Eskubideen Deklarazio zita bat dakar; "persona orok eskubidea dauka alor publikoko jardura guztiak bere hizkuntzan egiteko, baldin eta bera bizi den lurraldeko hizkuntza propioa bada", dio bertan. Horrekin batera Osasun administrazioari 5 eskaera zuzentzen dizkio;

"Hizkuntza eskubideak bete daitezten beharrezkoak diren neurriak hartzea, kontratatu beharrek langile guztiak beharrezkoak izatea, egun lanean ari diren langileak euskalduntzea, normalizazio plan eraginkorra abian jartzea eta neurri horien bidez benetako ofizialtasuna ahalbidetzea".

Joan zen urteko martxoan Jaurlaritzak osasungintzan euskararen erabilera normalizatzeko onartutako dekretua aurrerapausotzat jotzen du EHEK baina "berriz ere paper hutsean geldituko denaren beldurra" azpimarratzen du. Horren adibide jartzen du, Soraluzeko osasun-etxeke egoera, non 8 langiletatik hiruk euskara behar bezela menperatu ez arren ez diren ikasten ari.



Soraluzeko Osasun Zentrua.

SORALUZeko OSASUN ZENTROKO LANGILEEN EZAGUTZA DATUAK

EUSKARAREN EZAGUTZA	Euskaldunak	Zerbait daki (ikasten)	Zerbait daki	Ez daki
Administrazioa	1	1		
Erizainak		1	1	1
Pediatra	1			
Medikuak		1		1
GUZTIRA	2	3	1	2

Iturria: Osakidetza

Sabin Etxaniz
Soraluzeko pediatra
11 urtean

Zer iruditzen zaizu Osasungintzan zerbitzua euskaraz jasotzeko eska-tuz egingo den sinadura bilketa?

Eskaera naturala iruditzen zait. Euskaldunek eskubidea daukate euskarazko zerbitzua jasotzeko.

Ze oztopo ikusen duzu hori horrela izan dadin?

Lehenik eta behin, ikasle garaian formazio dena erderaz jaso genuela.

"Eskaera naturala iruditzen zait. Euskaldunek eskubidea daukate euskarazko zerbitzua jaso ahal izateko"

Administrazioetik badira laguntzak eta aukerak euskara ikasteko baina ez dira beti egokiak. Oztoporik handiena euskaraz ikasteko urrutira joan beharra da. Askotan ez da hurbileko herrietan talderik sortzen eta Donostiaraino joan behar izaten da. Horrek ahalegin handia eskatzen du. Inguruan talde gehiago osatzea lortu behar litzateke.

Gaur egun administrazioetik harrera zerbitzuen eta pediatren euskalduntzeari ematen zaio lehentasuna.

Eta langileen jarrera aldetik zer antzematen duzu?


Denetik dago. Batzuk gustora ikasiko lukete, beste batzuk ezdute ikasteko ahaleginik egiten eta gutxi batzuk kontra ere izango dira.

Zuk igartzen duzu euskararen beharra zure lanean?

Bai. Soraluzen euskaldun asko dago, batez ere umeek asko hitz egiten dute euskaraz. Beharrezkoa da euskaraz jakitea.

Ardura Jaurlaritzarena omen da

Inma Sanz Debarreneneko osasun zentruen koordinatzaileak (Soraluzeko erizaina), eskaera hori egitea zilegia dela aitortzen du. Gaur egun Debarrenean 3 langile (Soraluze, Mendaro eta Elgoibar) omen daude euskara ikasteko liberatuta. Inmaren esanetan "osasungintza euskalduntzeko ekimenak joan zen urtetik hona zerbait indartu" direla uste du (Jaurlaritzak onartutako dekretua ez du sakonean ezagutzen). Alfabetizazio eskolei dagokienean, inguruko herrietan talderik sortu ez eta derrigorrean Donostiara joan beharra oztopo dela ere salatzen du. Azken hilebeteotan, IVAP osasungintzako langileriaren euskara maila nolakoa aztertzen ari omen da eta ondoren "balorazio bat egingo delakoan gaude". Bere ustez, zerbitzuak euskalduntzeko ardura Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren esku dago erabat eta "administrazioak gehiago laguntzen badu gehiago aurreratuko da."



2002ko irailean, euskara meritu moduan bakarrik baloratu zen oposaketarako deialdia salatzeako E H E egindako plazan egin zuen parodia. Alboan komikia.

Unai Larreategi EHEko kidea

Euskara ofiziala da EAEn...

Bai, euskara ofiziala da orain dela 25 urtetik EAEn. Gasteizko parlamentuak orduan onartu zuen Euskararen Legea, lege horretan euskarari gaztelaren pareko status juridikoa ematen zitzaion. Lege hori ordea sarri paper hutsean gelditu da. Ea nork ulertzen duen bestela Osasungintzako azken oposaketan euskara jakitea merito huts bakarrik izatea eta ez ezinbesteko.

Bada normalkuntza plan bat.

Bai, orain dela bi urte 1.713 lanpostu erdeldun sortu ostean, ihaz onartu zuten dekretu bidez Osasungintzan Euskara Normalizatzeako Plana. Ez al litzateke plan egokiagoa lanpostuetan euskaraz jakitea eskatzea?

Hala ere aurrerapausotzat jotzen dugu plana onartzea. Paperean idazte soilak ordea ez du balio eta hor eragitea helburu duen herri eskaera bideratu nahi dugu Soraluzen. Beldur gara

*“Osasun administrazioari
erakutsi nahi diogu gure
herriak osasun-etxe
euskalduna nahi duela”*

Euskararen Legea 25 urtez paperean “kieto” egon den bezala, Normalkuntza Planarekin ere berdina gertatuko ote den.

Orduan Normalkuntza Plan horri eragitea da helburua?

Horixe. Osasun-administratioari erakutsi nahi diogu gure herriak osasun-etxe euskaldun bat eduki nahi duela. Horretarako maiatzaren 8an hasi eta uztailleko herriko jaiak bitartean sinadura bilketa bat bideratuko dugu. Sinadura horien helburua osasun-administratioari benetako normalkuntza plan bat diseinatu eta aplikatu dezan eskatzea izango da.

Udalari ez al zaio ezer eskatzen?

Osasun-administratioan udaletxeak ez du eskumenik, Osasun-administratioarena da. Hala eta guztiz, herri-eskaera amaitu ostean, udalari eskaera hau bere egiteko gonbitea luzatuko diogu.

NORMALIZAZIO PLANAK HERRIAN

Gure herrian badira dagoeneko gizarteko arlo desberdinetan euskararen normalizazioa bultzatzeko helburuarekin martxan jarritako normalizazio planak:

-BIZIBERRITZE PLANA

Eusko Jaurlaritzak Udalerrietan euskararen normalizazioa bultzatzeko Udalendako diseinatutako plana da. Gizarteko arlo ugari hartzen ditu bere baitan. Soraluzen, Udalaren beraren funtzionamendua, hezkuntza, kultura, komunikabideak...e.a. euskalduntzea du helburu. “Merkataritzan euskaraz” egitasmoa ere hemen kokatzen da.

-BAI EUSKARARI

Euskararen Gizarte Eragileen Kontseiluak, Udalak eta herriko euskalgintzak bultzatua da. Kirol, kultura eta hezkuntza arloko herriko elkarten funtzionamendua euskalduntzea du helburu.

Badira lan mundua bezala oraindik lantzeko diren esparruak ere.

ITUR iturgintza

**Iturgintza, Gasa
Berogailuak
Sukaldeak eta Bañuak**



Santa Ana, 20 Behea
Telefonoa: 943 75 12 41
Sakeleko telefonoa: 639 17 96 96

GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

**Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!**



Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

Akelarrea Irukurutzeta egunaren bezperan

Datorren maiatzaren 8an (Irukurutzeta egunaren bezperan), Akelarrea egingo da Irukurutzetako mendigainean Pil-pilean Kultura Elkarteak antolatuta. Arratsalde partean herritik atera eta Irukurutzetan kanpinak jarrita "gaufesta bero bat" egitea da asmoa. Horretarako, gitarra, soinu, adar, txalaparta eta tinbalak eramango dituzte suaren inguruan dantzan egiteko helburuarekin. Akerra ere izango omen da eta sorgin bihurtzeko errituala ere egingo dute. Biharamunean berriz, Irukurutzeta Eguneko ospakizunekin bat egingo dute.

Ekimenaren berri inguruko herrietara ere zabalduko duten arren, datozen urteetarako Osintxu, Elgoibar eta



Azkoitiko taldeekin berba egiteko asmoa dute ekimena elkarrekin antolatzeko proposamena egiteko. Gau ona pasa!

Sahararen inguruko argazki erakusketa

Kontrargi argazki taldeak antolatuta Sahararen inguruko argazki erakusketa zabalduko da datorren asteartean. Argazkilaria, Jose Luis Irigoien eibartarra da eta bere argazkiak maiatzaren 21erarte izango dira ikusgai.

Herri Urratserako autobusa



Datorren maiatzaren 9an Senperen egingo den aurtengo Herri Urratserako autobusa antolatu du Pil-pileanek, Elgoibarko Izarra euskara elkartearekin batera. Izen ematea; Gaztelupe, Iratxo Goxodenda, Gaztetxe, Arrano edo Pil-pilean bertan egin daiteke.

Aurtengo Herri Urratsen aterako dira Seaskarendako (Iparraldeko Ikastolen Elkartearendako) izango da. Aurtengo ediziorako aukeratutako leloa "Geroa egun gurea" da.

Ingeleseko udalekuak Soraluzen

Play & Say eta Udaleko Hezkuntza Batzordearen ekimenez, aurtun ere ingeleseko udalekuak antolatuko dira Soraluzen, ekainaren 28tik uztailearen 9ra bitartean. LHko bostgarren eta seigarren mailako eta DBHko lehen eta bigarren mailako ikasleei zuzenduta izango dira. Udalekuen ordutegia goizeko hamarretatik eguerdiko ordu batetara izango da. Helburua, jolasen bitartez ingelesta ikastea da. Matrikula zabalik dago, maiatzaren 21-a arte Udaleko Hezkuntza Zerbitzuan.

Jaiak "herrikoitzeko" ekimenak prestatzen dihardute

Herriko hainbat talde eta norbanakok, gazteak gehienak, aurtengo Santa Ana jaiak "herrikoizago eta partehar-tzaileagoak" izan daitezkeen ekimen sorta bat prestatzen dihardute azken asteetan. Besteak beste, txosnagune bat jarri eta horren inguruan hainbat ekintza antolatzea darabillkite buruan, beti ere "herritarrak antolatu eta herritarrak

protagonista" izango diren ekimenak izango lirakeela azpimarratuz. Udalak deitutako Jai Batzordean ere ari dira partehartzen eta dagoeneko aurkeztu dute egitasmoaren zirriborro bat. Orain jaietako gainontzeko ekitaldiekin uztarketa eginez uztaileko jaietarako gogor lan egitea izango da erronka. Animo!

20tik gora lagun larrain dantzarako

Urrats Dantza Taldeak eta Pil-pilean Euskara Elkarteak antolatuta maiatzaren hasiko da Larrain Dantza ikastaroa. Dagoeneko 20 lagunek eman dute izena ikastaroan eta orain ordutegia adostuko dute. Ikastaro honen helburua, Euskal Jaietako egun nagusian (ekainaren 12an) Plaza Zaharrean egingo den erromerian dantza egitea da.

Maria Luisa Blascoren margolanak ikusgai

Maria Luisa Blasco pintore soraluzetarraren margolanak Eibarren izango dira ikusgai maiatzaren 2rarte. Margolanak, Eibarko Portalea kulturguneko erakusketa gelan daude eta astelehentik igandera, arratsaldeko 18:30etatik 20:30etara bitartean. Erakusketa Eibarko Elkarte Artistikoak antolatu du, zeinako kide den margolarri soraluzetarra.

TXOKO KAFETEGIA



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22 behea, telf: 943751789



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren,10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE

Galdutako objetuen gunea



Iñaki Arriaga Udaltzainburua elkarrizketa egin aurreko egunean bertan galdutako bibolin eta panderoarekin.

“Gehixen giltzak galtzen dira”

Udaltzaingoan dagoen Objeto Galduen Gunea ezagutu nahi izan dugu oraingoan. Noiz edo noiz danok galdu izan dugu zerbait, burua ere bai kasurik txarrenean eta hortaz arduratzen den zerbitzua ezagutu nahi izan dugu, funtzionamendua eta bitxikeriak.

Zer gauzatu agertzen dira normalian?

Gehixen jasotzen dana giltzak izaten dira eta erropak be asko, batez be umienak. Aterkinak, betaurrekuan, telefono mugikorrak... eta holakuak. Atzo bibolin bat eta pandero bat agertu ziran. Dirua oso gutxitan azaltzen da.

Zenbat denboran eukitzen dozue objektua?

Galdutako zeozer jasotzen dogunian zeinek, noiz eta nun jaso daben erregistratzen da eta bi urtian eukitzen dogu,

balioxzko gauzia baldin bada. Denbora hori pasauta inor ez bada azaldu topau dabenari emoten jako eta bestela Caritas edo antzeko erakunderen bati. Jabia azaltzen bada be, legez objetuan bali-xuan %10a topau dabenari emon bihar dotsa baina praktikan oso leku gutxitan betetzen da hori.

Jentia etortzen da galdu daben objektuan bila?

Balioxzkoa danian bai, dirua esaterako. Dakigunian gutxigorabehera zeinena izan leiken geuk deitzen dogu. Aurtentz hogei bat gauza agertu dira dagoeneko, gauza txikixak, eta bosten jabiak bakarrik azaldu dira bakarrik. Jentiarri esango notsake etortzeko lasai, horretarako garelara eta ez lotsatzeko galdetzen.

Zer da jaso dozuen gauzarik arruena?

Behin kanarixo bat jaso genduan kaxola baten. Hankia apurtuta zeukan eta gaur zinegotzi daguan batek sendatu zeban etxian. Handik hilabetera azaldu zan jabia, kalian enterau zala eta. Beste behin bariantian diru mordo bat eta kartera bat topau genduzen. Karteran dokumentaziñua zetorren eta diar egin gon-tzan. Mendaroko tipo bat zan, urtetzerakuan karteria kotxe gainian laga zebana. Askok eskertu zoskun.

Galtzia batzuetan lapurreta izaten da.

Bai. Soraluze oso lapurreta gutxi gertatzen dira. Oso oso herri lasaia da. Gertatu izan diran ixa lapurreta danak drogomenpekotasunakin lotutakuak izan dira. Azken urtetan behera egin dabela esango neuke. Autotan balioxzko gauzak bistan ez lagatzia gomendatuko neuke hala ere.

IÑAKI IÑARRA
HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze

Juan Mari
Arraindegia

Eguneroko
arraina
eta konjelatuak

Merkatu Plaza
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69

Hastapeneko eskalda ikastaroa

Soraluzeko Mendi Taldeak, maiatzaren 29 eta 30ean egingo den eskalada ikastaro batean partehartzeko aukera ematen du. Ikastaroaren maila hastapeneko da eta beraz, eskaladako lehen pausuak eman nahi dituen jendearenda-

ko modukoa izango da. Ikastaroan izena emateko interesa duenak, asteazken arratsaldetan (19:30etatik 20:30etara) Mendi-taldeko lokaletik pasatuta edo 943 751029 telefonora deituta eman dezake.



Mendi taldeak antolatutako azken irteera, Jaizkibelera. Eguraldi bikaina egin zuen.

Andoaingo herri kirol topaketetara

XIBA Elkarteak, federatu gabeko kirolarientzat antolatutako Euskal Herriko Herri Kirol txapelketaren barruan, Soraluzeko 12 neska mutilez osatutako taldeak partehartzeko du larunbatean Andoainen egingo den Gipuzkoako kanporaketan. Soraluzetarrak Eskoriatzarrekin batera joango dira 16 talderen artean lehiatzera.

68 lagun pelota txapelketan

Aurten ere herritar askok eman dute izena Asier eta Iñakiren Omenezko Pelota Txapelketan. Joan zen asteartean egin ziren zozketak Gaztetxean eta maiatzaren 8an jokatuko dira lehenengo partidua San Andresen. Txapelketako kamisetak erosteko berri, maiatzaren 7an izango da aukera, 18:00etatik 20:00etara Gaztetxean.

EMAITZAK

Futbola

-apirilaren 24-25-
Zumaia **2** - SORALUZE **1** (Erre.)
Behobia **5** - SORALUZE **0** (Juben.)
Eibartarrak **1** - SORALUZE **0** (Kadet.)

Esku pilota

Haritz Laskurain
Min hartuta jarraitzen du.

Iñaki Jauregi

Bergara Hiria Txapelketa.

Bikotea: Aranzeta.
Diaz- Okinienan aurka 22-18 irabazi.
Orain finalerdiak jokatuko ditu.

Usurbilen. Uribarren-Lazkanon kontra 22-4 irabazi Zabalarekin batera.

Erlei Txurruka

Eskuko minarekin jarraitzen du pixkat oneratu zaion arren.

Aitor Atxotegi

Deba Arroko Txapelketan
22-1 irabazi Bergaran
22- irabazi Arrasaten

AGENDA

Esku pilota,


Apirilaren 30ean ETB Kantxako atzeratutako partidua jokatuko du Soraluzen.

Futbola,

Ostadar - Soraluze (Erreg.)
Soraluze - Union Txiki (Juben.)

Bolo Txapelketa

Maiatzaren 15ean San Andresko bolatokian jokatuko da kanporaketa.



Jose Antonio S.L.
igeltzeritza

Gabolatz, 19 - Telefona 943 75 11 14 - 943 75 24 49
20590 SORALUZE (Gipuzkoa)

Telefona 75 24 09
ARRANO
tabernia

“Giro euskalduna eta sanua”



etxera
EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

ETORRI ETA GOZATU



kutxa
gizarte ekintza

Instalaciones Kalebarren S.L.



GAS INSTALAKUNTZAK
ETA PROIEKTUAK
KALEFAKZIOA ETA AIRE EGOKITUA
ITURGINTZA OROKORREAN

20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@INICIA.ES

Edu Pombar eta Xuban Catalan

Pil-pilean aurpegi berriz beteta ikustia nahiko genduke

Pil-pileaneko beteranuetakuak dira Edu ta Xuban, makina bat abentura pasatakuak. Aldizkariko ia atal danetatik pasatu ostian bost hilabetez arduratu dira atal honetaz eta ondo baino hobeto bete dabe beren egitekua. Urriak aurrera jua diran arren, bi parrandazaliok hor jarraitu dabe beti Pil-pileaneko arrauneri gogor emanaz. Espero deigun beren laguntasun eta umore onaz beste hainbeste urtetan gozatu ahal izatia.

Izen-abizenak, edadia ta lanbidia

Xuban Catalan 25 urtekua eta Eduardo Pombar 26kua, bixok ikasliak.

Bixok afaltzera jua ezkerro...

Pasta entsaladia, rapia eta okelia eta txanpan sorbetia.

Egun baterako plana.

Xuban: Mendi buelta bat eman, kuadrilakuekin hortikan jua, afaldu eta gabian parranda.

Eduardo: Zinera juane ta gero parranda

Pil-pilean zergatik sartu ziñaten?

X: Ni Prietok engantxau ninduan.

E: Euskaltegixan komentau zostelako etorri nintzan.

Gustoko neskiak bihar dau...

X: ...

E: Pil-bazkide izatia. Ja, ja, ja!

Marrazki bizidunak.

X: Arturo Erregea, baina oin emoten ez dabezenez, Futurama.

E: Nik Heidi eta Marko ikusten nittuan.

Irala batera zer eramango zendukie?

X: Txalupia eta brujulia etxeratzeko.

E: Musikia, konpainia eta telefono bat SOSera deitzeko.

Pil-pileanen pasatutako urtietan anekdotarik eukiko dozue ba kontatzeko.

Jai batzuetan Atxolin tabernia hartu genduanian bixok 26 ordu pasau genduzen bertan geldittu bare! Orduan andra batek esan zoskun sekula probatutako kaferik txarrena jarri zotsagula. Pil-afari baten ostian Karakaten egon ginan lotarako zakuekin... Momentu on asko pasatu dittugu.

Zer falta jako Soraluzeri?

Kultur Etxe bat bihar dau lehenbaitlehen. Horretaz aparte zinia, autobus gehixao...



Bertso Begiz

*Beteranuak baina
artian gaztiak.
Lanerako finak ta
parrandazaliak
Pasatako urtiak;
afariz betiak,
Karakateko gaba
ta mikatz kafiak...
Kontatu gabekuak
ez dira hobiak!*

Neko

(Doinua: Bizkaiko txerriarenak)

Edu Pombar eta Xuban Catalan

Zelan nahiko zendukie ikustia Pil-pilean hemendik 5 urtera?

Pil-pilean aurpegi berriz beteta ikustia nahiko genduke, gero eta gutxiao garelako. Elkartiak be aurrera jarraitzia ta oin arte egindakua ez galtzia.

Ze baloraziño egitten dozue elkartian daroiazuen urtietatik?

X: Askotan lanekin kantzauta, baina orokorrian oso baloraziño ona egitten dot. Makina bat abentura izan dittugu ta asko "ikasteko" aukeria euki dot.

E: Oso ona, herrixan bihar zan honen moduko elkartia. Gainera, herrixak gero eta hobeto hartzen dau Pil-pilean.

Mendata taberna



*Berezitasunak:
Txipiroiak, Barazki
Menestra, Gixauak...
Asteburuan plater
konbinatuak
Enkarguak etxerako
(bazkariak eta afariak)*

Kalebarren, 5

Tfnoa 943 75 13 87

GAZTELUPE
taberna


tel: 943 75 20 81



Argazki zaharra

1977-78.ko Soraluzeko erregionala

Argazkian, 1977-78 denboraldiko Soraluzeko erregionala taldeko jokariak azaltzen dira. Goiko ilaran ezkerretik eskuinera, Paoaga, Jabier Larrañaga, Alberdi, Mariano, Roberto Zarobe eta Roberto Plazaola daude eta makurtuta, San Jose, Jose Mari Iraola, Jose Francisco Zabala, Vicente Lonbide eta Asis Trebiño.

Lehiaketa

*Aurreko
alean...*



Zer dago faltan edo zer soberan honetan?

***Bi lagunendako
afari mundial bat
irabazi zeinke!!***

DEITTU

943 75 13 04 ra

erantzuna...: Plaza Barrixan iturrira bideko zoru zati lixoa falta zen.

...eta irabazlea: Iñigo Perez



Kiru Muntaiak S.L.

**Blas Elizburu Kortabarria
Sukalde, enpotratu
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.**

Amillaga, 5 20750 Bergara
Tfnoa 943 75 13 12
Eskuko tfnoa 615 70 27 65

Bolia taberna

Etxaburueta
Tel.: 943 75 11 04
20590 Soraluze





Ugaraxo

Aldizkari honek udalaren dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko



Seguran Primeran

Gu, 4. Mailako ikasleak 2004-ko Martxoaren 22-tik 26-ra Segurako Barnetegira joan ginen. Herri hau Goierrri eskualdean kokatuta dagoen herri txiki bat da. Herri txiki eta polit hau mendiz inguratuta dago. Mendi hauek elurrez estalirik zeuden. Hotz handia egiten zuen baina gu bero-bero egon ginen. Herri honetako biztanleak nekazaritzan eta industrian egiten dute lana. Euskal giro jatorra dago herritarren artean.

Bertara Euskara sendotzeko helburuarekin joan ginen, eta baita lortu ere! Seguratik Euskaraz blai eginda etorri gara! PRIMERAN PASATU DUGU!

Segurako barnetegian ez zegoen aspertzeko tarterik. Goiz esnatu, jantzi, ohea egin eta gosaltzera joaten ginen. Gero txaparro


gelara joan eta han txaparro bilera egiten genuen, arduradunak txaparro liburuak banatzen zituen bitartean. Hitz jolas desberdinak egiten genituen batzutan.

Astelehenean, Martxoak 22 an herria ezagutzera irten ginen eta asteazkenean Urretxura, Aginaga auzoan dagoen Martimuño baserrira eta lore han, lora sikuak erabiliz, lora sorta egin genuen.

Egin dugun eta ikusi dugun gauza guztiak asko gustatu zaizkigu: herria ikusi, jangela, logelak, denbora librea, jolasak, bestelako ekintzak...

Seguran egonaldia denbora aberatsa izan da. Gainera oso - oso ongi eta gustora pasatu dugu.

Ah! Txaparro izan da gure maskota, Txaparro EUSKERAZ eta HARRO.




Bizkaiarako txangoa

Martxoaren 12an Bizkaia alderantz joan ginen, 5. eta 6. Mailakoak. Primeran pasatu genuen. Gernikan Batzar Etxea eta Gernikako Arbola ikusi genituen. Batzar Etxea, lehen, eliza zen. 1896an Bizkaiko Batzar etxea eraiki zen eta han Bizkaiko Batzar Nagusia biltzen zen. Oraindik ere, erakunde hau bertan biltzen da. Ondoan, Gernikako Arbola zegoen, handia eta zaharra. Kendu eta orain dagoen semea landatuko dute. Gero Gaztelugatxera joan ginen. 231 eskailera igo genituen. Han goitik itsaso barea ikusten zen. Aterpetxe bat zegoen eta ondoan, kanpandorre bat. Ordu bi t'erdietan Butroiko gaztelura joan ginen etxeratu aurretik.



Gernikako zuhaitzaren aurrean ateratako argazkia.



Butroeko gazteluaren aurrean ateratako argazkia.

Batzar Nagusiak Ertaroan hasi ziren Gernikan eginen. Honen inguruan beste eraikuntza batzuk egin ziren, hau eraiki arte. Batzar Etxea Bizkaiko erakunderik garrantzitsuena da. Batzar Nagusiak oso antzinako erakundea dira. Jatorria, ertaroan dago.

Gernikako Batzar Etxearen ondoan hiru zuhaitz daude. "Haritz zaharrak", gutxi gora-behera, 300 urte ditu. Gaur egungo Gernikako Haritza 1860an landatu zuten. Haritz Gaztea, oraingo haritzaren oinordea izango da.

Batzar Aretoaren ondoan Lehiarpeko Aretoa dago. Gernikako Haritza Bizkaiko herrien topagune sinbolikotzat agertzen da lehiarrezko estalkian. J.M. Iparragirre abestigile ospetsuaren kitarra ere bertan aurkitzen da.

Butronera joan ginen bazkal ostean. Lehenengo, bideo bat ikusi genuen. Bideoan, gazteluan bizi ziren pertsonak agertzen ziren. Pertsona horiek bere bizitza eta beraien ohiturak kontatzen zituzten.

Ondoren, gaztelu guztiko dorreetara igo ginen. Dorreetako eskailerak estuak, kiribilak eta malda handikoak ziren, ezin ginen bi pertsona batera joan. Dorreetatik paisai ederra ikusten da baina guri giro txarra egin zigunez, ez genuen ezer ikusi.

Butron gaztelua erdi arokoa da eta XIX. mendean berriztu zuten.

Butron oso polita da eta gomendatzen dizuegu ikustera joatea baina eguraldi onarekin.



Inkestatxiki

Ze liburu irakurri dozu azkenengo? eta zein irakurtzeko gogua daukazu?

IKER BENITO 12 URTE 6.B

Fernando Amezketarra irakurri dot eta asko gustau jata, ze makina bat da. *Gulliverren Bidaiak* irakurtzeko gogua daukat.



JANIRE MORENO 12 URTE 6.A

Josu Azalaren *Abenturak* irakurri dot. Komikixak be irakurtzen ditudat eta *Harry Potter* irakurtzeko gogua daukat.



RAQUEL MENAYO 12 URTE 6.B

Gehixen gustau jatan liburua *Manolito Gafotas* izan da. *Asterix* eta *Obelixen* komikixak irakurtzeko gogua daukat.



MARTIN LUKE 11 URTE 6.A

Azkenengo irakurri dotena, *Harry Potter y la orden del Fenix*. *Bostak* deabruaren harkaitzetan liburua irakurtzeko gogua daukat.



Bertsotan



Zelai erdian loreak argi roza, krabelin ta lili
loreak urtetzen dabiz eta
Udaberria dirudi.

Doinua: Santa Ageda

Udaberria heldu
zaigu guri aurten
eta txoriak dabiz
gustora kantatzen
txorien kanta alaia
gabiz gu entzuten
mendietan badabiz
loreak urtetzen.

Doinua: Maritxu nora zoaz

Txoriak eta hostoak dabiz
zuhaitzetan biraka
eta loreak ikusten dira
talde eta koloreka.

Egileak: Oier F., Haritz A. eta
Iker B.

Udaberria iritsi zaigu
eguraldi txarrarekin
Aste Santuan egongo gara
egun eguzkitsuekin.

Txorien kanta entzuten dira
mendigaineko puntetan
hostoak irtetzen hasi dira
zuhaitzeko adarretan.




Euskara ikasten!

Wendy, Karen, Melissa, Carlos eta Martha Ekuadorren jaioak dira eta gaztelera da euren ama hizkuntza. Orain Soraluzen bizi dira eta hemen euskeraz ere egiten denez euskara ikasten hasi dira buru belarri.

Eskolan ikasten dutenaz gain, eskolaz kanpo ere Nariara begiralearekin ikasten dute euskeraz, joku eta jolasen bitartez. Astean bi arratsaldetan, bi ordu ematen dituzte euskeraz berba egiten.



Wendy, Karen, Melissa, Carlos eta Marthak gustora joaten dira euskarazko eskoletara eta menderatuko ikasiko dute euskeraz berba egiten.



Wendy eta Martha Goenkaleko Gutierrez eta Amairarekin batera egon zirenekoa.

Batzuetan irteerak ere egiten dituzte, eta ipuinak irakurri eta jolas egin, eta abestu eta beste gauza asko.

Oso gustora dabilta euskara ikasten eta dagoeneko ulertu ere ulertzen dute. Animo bat eta ea hilabete batzuk barru bertsoan egiteko gai zareten!



Margari eta Eusebiorena ondoan ere ibili ziren.

MARTHA ROMERO 9 URTE



“Oso gustora nabil hemen. Gauza asko ikasi dogu euskeraz; koloreak, animaliak, sorginen historiak...”

MELISSA PILOZO 10 URTE



“Oso pozik nago irakasliakin. Gero eta hobeto ulertzen dot euskeraz. Neri gehixen trikitixa dantza egitia gustatzen jata.”

KAREN ROMERO 11 URTE



“Egiten dogun dana gustatzen jata. Pintxuak egitia, musika, abestien bitartez euskeraz ikastia...”



Elgoibarko Institutua

San Roke, 1 Arregitorre, 2

Tel.: 943 74 80 19

E-posta: bulegoa@elgoibarbhi.net



ELGOIBARKO
INSTITUTUA
2004-2005
ikasturtea

BATXILERGOETAKO HEZKUNTZA ESKAINTZA

NATUR eta OSASUN ZIENTZIEN BATXILERGOA

■ Zientifiko-Tekniko aukera ■ Osasun aukera

GIZA eta GIZARTE ZIENTZIEN BATXILERGOA

■ Gizarte Zientzien aukera ■ Humanitate aukera

TEKNOLOGIAREN BATXILERGOA

BATXILERGORAKO AURREMARIKULA EPEA: maiatzaren 3tik 7ra arte

600 ikasle inguru beraien etorkizuna jorratzen · **45 ikasgai**ren eskaintza. Ikasle bakoitzak bere bidea aukera dezan · **Azpiegitura teknologiko aurreratuena**. Etorkizunerako prestakuntza ziurtatuz · **ISO 9002 kalitate ziurtagiria**. Prozedura garden eta kontrolatuak · **80 lizentziatu, ingeniari edo diplomatu**. Unibertsitate eta goi mailako zikloetarako **prestakuntza zuzena** · **Selektibitateko emaitza ezin hobekak**.

*gatoz
elgoibarko
institutura*

AKELARREA

irukurutzetan

ai, ai, ai, ai, ai

**maiazaren 8an,
larunbat gaua**

**Ilargipeko gau
bero beroa izango da!**

**16etan irteera
Plaza Barritik.**

21etan afari pasadia.

Eta gabian... sua, musikia, akerra, sorginak, dantzia, edarixa ...





ARMERIA ESKOLA

Goi Mailako L.H.ko Berariatzko Institutoa
Isasi kalea, 36 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa) - Tel.: 943 20 32 44

2004/2005 IKASTURTEA

HEZKUNTZA ESKAINTZA
"A" eta "D" EREDUAK (Gauzez eta Egunez)

BATXILERGOA
ERDI MAILAKO
ZIKLOAK
GOI MAILAKO
ZIKLOAK



MUGARIK GABEKO
"TALDE EKINTZA"
ZUREA ETA GUREA



ZIENTIFIKO-TEKNOLOGIKOA

MEKANIZAZIOA

EKIPO ETA INSTALAZIO ELEKTROTEKNIKOAK

PRODUKTU ELEKTRONIKOEN GARAPENA (BERRIA)

MEKANIZAZIO BIDEZKO PRODUKZIOA

PROIEKTU MEKANIKOEN GARAPENA

INDUSTRI EKIPOEN MANTENIMENDUA

TELEKOMUNIKABIDE ETA INFORMATIKA SISTEMAK

ERREGULAZIO ETA KONTROL AUTOMATIKO SISTEMAK

IZENA EMATEKO:

Batxilergo eta Heziketa Zikloetarako sarrera frogak,
maiatzaren 3tik 7ra (biak barne).
Sarrera zuzeneko Heziketa Zikloak,
ekainaren 1etik 9ra (biak barne).

EZOZIA

JATETXEA

Zatoz eta gozatu
gure jakiak!



EZOZI jatetxean bazkari eta afaririk
ederrenak preziorik onenean.

Eguneroko menua
eta aukera zabala kartara.

Ezoz Auzoa Tel: 943 751001 SORALUZE